



AZAROAREN 25A

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Ostiralean, azaroaren 24an, azaroaren 25ean ospatzen den Emakumeen aurkako Indarkeria Ezabatzeke Nazioarteko Egunaren harira, ekintza ekintza ezberdinak antolatu ditugu Ikastolan.

ETORRI MOREZ JANTZITA!

Ekimena etapa guztietara zabalduko dugu, bertoko ikasleen ezaugarrietara egokituta.

***Haur Hezkuntzan**, mari more kanta eta dantza baliatuko dute eguna girotu eta lanketa egiteko. Puntu morea esku moreen estanzioarekin osatuko dute, baita photocall bat ere. Honekin batera aurpegiak margoztuko dituzte eta gaia lantzenko ipuina kontatzeari ekingo diote.*

***Lehen Hezkuntzan** ere, zenbait bideo eta kanta baliatuko dituzte gaia lantzeko eta indarkeria matxistaz hausnartzeko. Horretaz gain, mikromatxismoak identifikatzeko jardura ere burutuko dute. Indarkeria pairatu duten emakumeen mapa aztertu eta testigantzak entzungo dituzte. Azkenik, esku more eta esaldi ezberdinekin puntu morea eta pankarta osatuko dute.*

***Bigarren Hezkuntzan**, maila bakoitzean proiektu ezberdina jorratuko dute. Ikastolan landutakoaz gain, Laudioko BHIko ikasleekin elkarlanean, DBH3tik gorako ikasleek goizeko 12:00etatik 13:00etara giza katea antolatu dute herrian.*

Azaroaren 24an egindakoari Udaletxetik eskainitako hau ere gehitu behar zaio: DBH4ko ikasleek Guatemalako emakumeen bizipena ezagutzeko aukera izan zuten eta Batxilergoko 2.mailakoek indarkeria matxista jorratzen duen antzerkia ikusi zuten Laudioko Kasinoan. Aurrerago, abenduaren 12an, DBH3ko ikasleek El Salvadorreko "Organización de Mujeres Salvadoreñas por la Paz" elkarteke emakume batekin

solasaldi bat izango dute. Bestalde, abenduaren 11n, Batxilergoko ikasleek La psicowoman psikologa eta sexologoarekin tailer bat izango dute. Lantegi honetan harreman osasungarriak eta lotura afektibo positiboak eraikitzeke moduak landuko dituzte.

AZ 25 ARGAZKIA

Eguneko ekintza bateratua etapa guztietako ikasleekin osatutako mosaikoa izango da Azaroak 25 data eta puntu morea irudikatuz.



BERDINTASUN TOPAGUNEAREN HURRENGO BILERA

Ikastolako Berdintasun topagunearen hurrengo bilera abenduaren 5ean 16:30ean burutuko dugu idazkaritzako bilera gelan.

Betiko moduan, bilera irekia da eta Ikastolako kide guztiok bertan parte hartzeko aukera dugu.